



SINATZAILEA

El Alcalde de Areso/Aresoko Alkatea  
JOSE OTERMIN ECHARRI  
2023/08/30



ARESOko UDALA

## ALKATE EBAZPENA 86/2023

Areson, 2022ko abuztuaren 30ean

### GAIA: ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTU ETA FINKATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIA ERATZEA

JOSE OTERMIN ECHARRI, Udalerri honetako Alkateak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

#### ADIERAZTEN DU:

2022ko urriaren 31ko Nafarroako Aldizkari Publikoko 215. aldizkarian argitaratu ziren Aresoko udaleko administrari lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia eta prozesua arautuko duten oinarriak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Behin eskaerak aurkezteko epea igarota, eta deialdiko 5.1 puntuan xedatutakoaren arabera, kalifikazio epaimahaia deialdi hau onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da. Kide-kopurua bakoitia izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da. Izendapen hori argitaratuko da deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan.

Hau aintzat hartuta, honakoa,

#### EBAZTEN DU:

**LEHENENGOA.-** Aresoko udaleko administrari lanpostua, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea:

- Lehendakaria: Jose Otermin Echarrri, Aresoko Alkatea
- Lehendakariaren ordezkoa: M<sup>a</sup> Beatriz Muro Martínez, Aresoko Alkateordea



SINATZAILEA

El Secretario de Areso  
MAIDER CASTILLA ELARBE  
2023/08/30

ARESOko UDALA | Eliz bidea z/g | 31876 ARESO (Nafarroa) | T. 948 510 327 | CIF/IFK P-31 031 000-H



ARESO

Egiaptapen-aseguru kodea: 7EAA ALUV JDF3 LVK7 Z4UV

Resolución Nº 86 de 30/08/2023 "Egonkortze prozesua: epaimahaia izendatzea." - SEGRA 5650

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://egoitzaelektronikoa.areso.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

El Alcalde de Areso/Aresoko Alkatea  
JOSE OTERMIN ECHARRI  
2023/08/30



ARESOko UDALA

- Bokala: Idoia Saralegui Ochotorena, Mendialdea Mankomunitateko administraria
- Bokalaren ordezkoa: Amaya Arrizubieta Baleztena, Larraungo administraria
- Idazkaria: Maider Castilla Elarre, Aresoko idazkaria
- Idazkariaren ordezkoa: Ana Alduntzin Navarro, Larraungo idazkaria

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Areson, 2023ko abuztuaren 30ean

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.



SINATZAILEA

El Secretario de Areso  
MAIDER CASTILLA ELARRE  
2023/08/30

ARESOko UDALA | Eliz bidea z/g | 31876 ARESO (Nafarroa) | T. 948 510 327 | CIF/IFK P-31 031 000-H

